

+

**BIDAIA ETA MENDI
KRONIKEN
LEHIAKETA (II)**

Andeen eta Ozeano Barearen artean zabalitzen da Atacamako basamortua, eta bere barruan ezkututzen du ilargitarra dirudien nitrozko panpa. Munduko lekurik sikuen da; horregatik gorde ditu bere harri eta hondar artean bizi izaten saiatu direnen aztarnak.

Nitrozko panpa: memoria isila



Andeak zerumugan, panparen mugetan.
ITSASO ARRIZBALAGA ZENARRUZABETIA

Iñigo Ribaguda Egurrola

Denboran atzera egiteko hiru bidaiari oso berezik harean utzitako oina-tzak segituko ditugu. Guevara, Neruda eta Galeanoren hitzei jarraituz, nitroaren garai desagertuaren bila goaz, ino-ra ez doazen trenbideetatik aspaldi mamu bilakatu ziren geltokietara.

Andeak aspalditxo utzi ditugu atzean, baina hor jarraitzen dute, sei mila metrotik gorako erraldoi harroak hodei gabeko zerumugan. Kilometroak ehunka zenbatzen ditugu Txileko Norte Granden barna. Harea larri eta xehe, harriak handi eta txiki, Atacamako basamortua ez da bere handitasunean monotonoa. Argia zein koloreak bereziak dira, gorri, marroi, hori eta okre tonalitate amai-gabeak inon baino urdinagoa dirudien zerupean. Perfektua omen da Atacamakoa basamortuen ar-

tean, sikua oso, mendeetan euri-rik ikusi ez duena, eta inon baino argitsuago ikusiko dituzu gauero izarrak. Baina egunez tentuz ibili beharko zara: ultramoreek bortitz jotzen dute hemen. Ura ezinbestekoa da, itzala beti ongietorria, ez zaitetz inoiz bata zein bestea bermatu gabe basamortuan abiatu. Hori da Ernesto Guevarak eta Alberto Granadosek Calamatik oinez hasi eta bi kilometrotara ikasi zutena, ordurako galdua zuten motorra oroitzuz.

Calama, orduan bezala, meategi bati pegatutako hiria da, kanpaleku kutsua galdu gabekoa. Errepideak lur sikuan aurrera egin ahala nitrozko panpan sartuko gara, non eta noiz oso ondo ez badakigu ere. Muga zehatzik gabeko lurraldea izan da hau, betidanik. Panparen ertzak nitroaren bila zabalduko bulegoek marikatuko zuten garai batean. *Salitre, nitrato, caliche*... urre zuria, finean. Basamortuaren azal zuririka, beroak milaka urteetan

sortutako zarakar fin bat. Gure airtona-amonek ezagutu zuten, beraien aitona-amonek hobeto, Nitratos de Chile, Europako lur agortuentzako ongarririk onena. Urrearena modukoa izan zen deskubrimenduak sortu zuen sukarrak eta ordura arte inori axola ez zion basamortu amaigabea borroka zelai bilakatu zen. Peru eta

Harea larri eta xehe, harriak handi eta txiki, Atacamako basamortua ez da bere handitasunean monotonoa

Panpa denbora kapsula erraldoi bat da, eta abandonatutako nitroaren bulegoak horren lekuko dira

Boliviarenak ziren lur horiek, baina Txilek gerraz lapurtu zituen, negozioa britainiarrena beti. Nitroaren zirkloa laburra bezain bizia izan zen, XIX. mende amaieran garai hartako teknologiarik aurreratuenaz ehundik gora bulego

sortu ziren, lantegia eta hiria batzen zituzten tokiak. Gutxi batzuentzako *belle époque* gozoa, milaka langilerentzako nitroa bezain gazia. Galeanoren zain irekietako bat.

Zerutik begiratuko bagenu, mortua zeharkatzen duten lerro zuzenak identifikatuko genituzke, Nazca industrial bat. Lurretik apenas nabarmentzen diren, ordea, hareak eta beroak janda, trenbideak dira itsasoaren bila. Bulegoetan sortzen zena portuetatik ateratzen zen. Burdinbideak haren, aspaldi pasa zen azken tren. Bulegoen arrastoak nonahi, haizeak harriz eta pezoze egin dako eraikinak ia desagertu arte borobildu ditu. Baina nitroaren aztarnetan murgildu aurretik panparen beste garai batzuk bisitatuko ditugu.

Nitroaren jauntxoak, konkistatzaileak zein inkak iritsi baino mi-

laka urte lehenago, bertako kulturek muino hauetan marraztutakoak gaurdaino iritsi dira, bere misterio eta guzti. Ezinezkoa da Atacamako erraldoia ez ikustea, ia ehun metro luze den *chaman* ahalguztiduna, *cerro* Unitaren magalean beheara. Pintadosen, ordea, petroglifoen etorbidea ere deituan, zailagoa da simboloak identifikatzea; han zirkulu bat, kilometrotara agian beste bat. Errazagoa suertatzen da Nerudak lurralde honetaz egindako deskripzio poetikoak ikustea: «Zaila eta latza zen panpatik ibiltzea. Lautada haietan sartzea, hareataz haien aurre egitea, ilargian sartzea bezalakoa zen. Lur titanikoa, biluzik, belar bakar bat gabe, ur tanta bakar bat ere ez, sekretu neurrigabea, zaputza. Mortuak ez du hitzik egiten, mortua isiltasuna da». Eta berak hitz egin behar zuen, nitratoaren langileek senatari aukeratu zutelako, beraien ordezkarria zen urrutiegi zegoen hiriburu batean.


Bai, paisaia berezia da oso. Lur apurtua, ilargiaren testura hori. Mende luze igaro bada ere calichearen bila mortuari eragindako zauriek sendatu gabe jarraitzen dute, atzo bertan basamortu guztia goldatu dutela dirudi. Oraindik Che ez zen Guevarak halako tokietan egin zuen lo, eta inoizko gaurik hotzera gogoratzen du, lan bila handik hona zebilen bikote komunista bati tapakia utziko dio, beraien ideiak jasoko ditu, eta egunsentiarekin batera bidai jarraitu.

Matillatik Picara

Egun, izarren pean lo egin nahi ez duenarentzat, Iquique izan daiteke panpan bidaiatzeko kanpamenturik egokiena. Autobusez eta ordubetera Humberstone eta Santa Elenako bulegoak bisitatu daitezke Iquiquetik, baita kolonia garaiko herri batzuk ere. Baina panpa benetan ezagutzeko modurik onena meatzari *pick-up* bat da, mortuan markatutako bidetik atera edo herriarik galduea ikusteko aukera eskainiko dizu. Herriak badira, bai, ur putzu bakoitzeko bat; batzuk errepideekin batera sortu ziren kale bakarreko herri luzeak, besteak Panamericanatik urrutiko geratu ziren kolonia garaiko herrixkak. Matilla da azken hauetako bat, bisita bat merezi duen pezozko herri polit bat. Ongietorria, Galeanok esango zuen moduan, oso agureak diren agureek egingo dizute, eta haiek zein herriko eraikinek hamaika lurrikara nola gainditu dituzten kontatuko kolonia garaiko eliza zein dolarea erakusten dituzten bitartean.

Matillatik Picara goaz, panpako oasira, lorategi berde bat hondar artean. Ura putzu bat baino gehiago da Pican eta mortuaren eguerdiko beroan bainu fresko bat eskaintzen dizu. Egun nahiko herrikoiak dira igerileku naturalak, baina XX. mende hasieran nitroaren jauntxoaren deskantsu tokiak zen Pica, eskusiboa oso. Jauntxo horien egurrezko etxe dotore gutxi batzuk jarraitzen dute zutik, georgiar estiloari eta mende luzeko utzikeriari eutsita. Gehienak, aldiz, desagertu dira. Desagertu ez dena plazan sumatu dezakezun *belle époque* kutsua da, pergoladun banku eta ingeles lorategiak.

Ikusgarriena azkenerako utzi dugu. Panpa denbora kapsula erraldoi bat da eta abandonatutako nitroaren bulegoak horren lekuko dira. Norte Grande honetan mamu bilakatu dira, euri eskasiak eta haize sikuak momifikatuak, garai bizi eta gogor haietako



Humberstone herriaren ikuspegia jauntxoaren barandatik. | ARRIZABALAGA ZENARRUZABETIA



Humberstone, denboraren igarotze gupidagabea. | ARRIZABALAGA ZENARRUZABETIA



Humberstoneko tximiniak mortuan abandonatutako obeliskoa dirudi. | ARRIZABALAGA ZENARRUZABETIA

testigantza isilak. Humberstone izan zen Nitroaren Bulegoen artean handienetakoa, milaka langile eta haien familien lantoki, bizitoki eta borroka leku. Hemen sortu zen Txileko langile mugimendua, hemendik abiatu ziren Santa Maria de Iquiqueko sarraskian akabatuko zituzten langileak. Hemen garatu zituzten britainiar jabeek zigor eta sari teknikak, bitxikeria filantropikoak eta ustiapen mugagabea. Eta hemen gordetzen da, oraindik, urte haie-tako memoria, Humberstone osoa museo bilakatu duen elkarte bati esker. Labe erraldoiak eta obelisko herdoildua dirudien tximinia luzea, umek eskuz egingo jostailu txikiak gurasoen lan tresnen pareko, ugazabaren etxe dotorea eta tenis kantxa langileen etxolen aurrean, lekuz kanpo dauden egurrezko antzokia eta burdinurtuzko igerilekua, aldarrikapenez eta oroimenez betetako kale hutsak.

Badira ikusi aurretik irakurri dituzun lekuak, hara heldu bezain pronto ezagunak egingen zaizkizunak. Galeanori eskerrak eman behar dizkiogu, berak idatzi zuen desagertze zegoen mundu honen azken kronika, bulego hauen desagertze fisikoren testigu bilakatu zen, eta lehenengo pertsona deskribatu: «Hondakinak eta zuloak ikusi ditut, mamu bilakatutako herriak, nitroaren bulegoen armazoi biluziak, urteetako haizeak zulo txiki-zositako teilatuak...». Hezetanunik ezak eta haize sikuak burdina ez ezik egurra ere ederki kontserbatzen zuten guztia eraman zuten, «herri osoak desmuntatzen zituzten langile kuadrillak sortu ziren, lurralde arrasatu hauetan lana zeukatzen bakarrik». Horrela desagertu ziren ehundik gora bulego. Humberstone izan zen nitroa lantzen jarraitu zuen azkena, eta itxi zuenerako txatarra biltzen zutenak ere joanak ziren.

Desagertutako herri oso baten memoria da, behin bulegoak itxita lan bila alde egin behar izan zuten *pampinoen* oroimenean hilerri. Haien bizipenak, hitz egiteko modua, kantak eta ipuinak hemen geratu dira, kultura oso bat hondar artean galdua. Panpa zabalak eszenatoki erraldoia dirudi, antzezlanak bukatu gabe, atrezzo bertan utzita, abandonatutakoa. Itzaletatik ehunka langile aterako direla ematen du, une batetik bestera Neruda agertuko dela, eta diskurtsoa bukatuta langile horiek poema bat eskatuko diote, mortuaren bakardadean bakarrik ez daudela amesteko.